

Gu Oiartzo Ikastolako lau ikasle gara eta gutako bat zientzien modalitatea egiten ari da. Bere ikuspuntu zientifikoak gure enpresa ideia burutzen lagundu digu, horregatik, gure proiektu honetan laborategi bat txertatzea erabaki dugu. Letretako adarra ikasten ari direnek, berriz, proiektuaren kostuak, etekinak, publizitatea, elkarteak, banaketa etab. kalkulatzeko lagundu dute, gure proiektua ahalik eta zehatzena izateko.

Gure kezkek partekatu ostean, gutako guztioi lur planetaren egoera txarrak kezkatzen gintuela konturatu ginen. Hau dela eta; lur planetaren kontaminazioa ekiditeko edo behintzat gutxitzeko sortu zen proiektua, izan ere, mundu mailako arazo larri bat zaborraren gainproduktzioa da, eta zabor horri erabilpena ematen bazaio, arazo hori desagertu ez ezik, etekin handia atera daiteke

Gure enpresak "GreenLab" izena du eta abonoaren ekoizpena zirkularra izatea du helburu, horretarako beste enpresek sortzen dituen hondakinak eta zaborra erabiliko ditugu gure abonoa sortzeko. Horrez gain, nekazarien lurrek behar dituzten beharretara egokituko da gure abono ekologikoa, horrela, uzta hobetoak lortuko dituzte, horrek ospea emango dio gure produktuari eta horren ondorioz geroz eta etekin handiagoa lortuko dugu.

Gure helburua, lehenago aipatu dugun bezala, mundu honen zabor kopurua murriztea gure lan formatuaz baliatuta eta gure pentsamenduak beste enpresei eta pertsonen zabalteza.

